

Nere Ararteko erdalduna

Euskaldunon Egunkaria, 1995-03-14: 2.

Zuk ez duzu uste nik Ararteko euskalduna merezi dudanik, milaka euskaldunok Euskal Herrian Arartekoagandik zerbitzu zuzen eta euskaldunaren ardura merezi dugunik. Zeren eta geuk oinarrizko eskubide hau izanik. Ararteko erdalduna izateko gogoia eta nahikeria pertsonala borrokatu duzu zerorrek zuretzat konbinazio politikoak *klinck* egin dizun arte. Badakizu aingeruki zein konkista lortu duzun eta zer apurtu duzun zure presentzia erdalduna euskararen aldarean bertan iuposatu diguzunean. Zeren eta ez zara orain politikoen atzean izkutatuko; hauei falta zaien lotsa euskalduna, zuk. Ararteko izateko lain bokazio zorrotz duzun horrek, behar duzu gizonki agerian jarri. Esango didazu, baduzula ondoan eta zurekin, euskaldunei zerbitzu euskalduna emango dien pertsona egokia. A!, zer konponketa! Zergatik, baina, inbento hau? Milaka lagun euskaldun eta erdaldun, elebidun!, hauen aurrean Arartekogai egokia bada gure herrian bi hizkuntzetan erraz eta egoki aritzeko. Eta eksklusibaz erdaldun huts eta lujoko den Arartekoa nahi da, zu zara, geu hori gabe geratuko gara, utziko gaituzu. Ukapen hau egiteko eskubide eta indarra duzun horren kontzientziak zainduko al ditu erdaldunen eskubideak, aspaldidanik daude eta umezurtz abandonatua.